

*Justa Gorostiola Muñagorriren heriotza agiria.*

bertan sortu zen iloba, Madalen kaleko etxe horretan: Daniela Aranberri Petriarena, Maria Luisa bertsolariaren alaba eta Joxepa Antoni Aranberri Petriarena bertsolariaren ahizpa. Egun gutxi egin zituzten bizirik, ordea, ama-alabek: Daniela abenduaren 17an hil zen, eta ama, Maria Luisa, hurrengo egunean, abenduaren 18an. Eta egun horretantxe geratu zen umezurtz amaren aldetik Joxepa Antoni Aranberri Petriarena, lau urteko neskatxa.

Joxepa Antonik garamatza **bigarren kontura**, kontu zahar berritura, Joxepa Antoni Xenpelar bertsolariaren bizitzari dagokionera, hain zuzen ere. 2013an argitaratu genuen *Joxepa Antoni Aranberri 'Xenpelar' (1865-1943)* liburuan (27. orrialdean) genioen,

Jakin ere ez dakigu noiz galdu zuen Joxepa Antonik aita. Zavalak ez du esaten, eta guk ere, eginahalak egin arren, ez dugu lortu jakitea, baina oso gaztea ez zen izango. Jaso dugun bezala, 80 urte gutxienez izango zituen, erroldaren bitartez badakigu 1910a arte bederen alabarekin bizi izan zela, Biteri kalean.

Bi senar-emazteen heriotza agiriak eskuratu dizkigun Esteban Los Santosi eskertu behar diogu lehen ez genekiena orain jakiteko moduan edukitzea: Joxepa Antoniren aita (Jabier Aranberri, 1830-1911) eta amaordea

(Justa Gorostiola, 1840-1911) 1911n hil zirela biak, aita otsailean, eta amaordea maiatzean.

Alegia, datu horiek eta erroldakoek erakusten digute Joxepa Antoni Aranberri Petriarena Biteri kaleko etxe berean bizi izan zela amona eta gurasoekin; amona Rita Berrondorekin 1882a arte, hil zen arte, eta aitarekin eta Justa Gorostiolarekin 1911 arte, biak hil ziren arte. Hortaz, datuok zalantzan jartzen dute Antonio Zavalaren baieztapen hau:

Aita mundu ontatik joan eta bakarrik gelditu zanean, Joxepa Antoni auzoko familiarekin asi zen bizi izaten. Leen ere etxeok balira bezela ziran, baiña arrezkeroztik aiekin era bat jarrizan. (Zavala 1993: 551).



*'Matxio'. Arg.: Elixabete Perez Gaztelu.*



*Joxemari Telleria (Segura, 1943).*

**Hirugarren kontu** berriagoak beste urteurren batera garamatza bidenabar, Juan Frantzisko Petriarena *Xenpelar*ren irudia dela medio. Iazko, 2018ko, abenduaren 12an utzi gaitu Ayalde pintorearentzat Xenpelarren irudia izan zen (eta ondorengoentzat Xenpelar bera irudikatu duen) Antonio Lekuona 'Matxio' oiartzuarra.

Antzirudi horixe bera, irudi horixe, biziberritua dugu irudi batean, Errenteriako eliza bateko erretaula batean, 50 urte betetzen dituen Pontikako auzoko elizan dago eta.

Joxemari Telleria (Segura, 1943), Zerainen bizi den segurarrak pintatu zuen Pontikako elizako erretaula orain dela ia hogeita hamar urte, 1980an, eliza sakralizatu behar zela eta. Honela aitortu digu:

Hemen doakizu Pontikako elizako San Markosen irudiari dagokiona.

1980ko urriaren 19an sagaratu zen Pontikako elizan dagoen erretaula orduan bertako erretore zen Patxi Albisu segurarrakeskatuta egin nuen. San Markos apostolua lehoiarekin irudikatu izan da, horregatik, nik San Markosen irudia eta lehoi baten burua elkarrekin nahastuta

margotu nituen, eta, apostoluaren aurpegia berriz, Pontika Errenterian dagoelako, Antonio Valverdek (Ayalde) margotu zuen Xenpelar bertsolariaren erretratukoa jarri nion.

200 x 340 cm dituen olio margotutako oihala da.


Honatx, bada, Xenpelar biziberritua, Matxio oiartzuarra eta Telleria segurarra direla medio.

Esan dezagun Xenpelar dela bide errenteriarretutako Joxemari Telleria pintoreak Pontikako erretaula ez ezik beste lan batzuk ere eginak dituela. Besteak beste, herri eta hiri hauetan erakusketak egin ditu, 1963tik 2010a arte: Segura, Lazkao, Zaldibia, Beasain, Legazpi, Zumarraga, Ordizia, Ormaiztegi, Urretxu, Andoain, Donostia, Irun, Hendaia, Durango, Zalduondo, Bilbo, Arrasate, Gasteiz, Iruñea, Berga, Rubí, Palma, Santillana del Mar, Torrelavega, Madril, Vilanova i la Geltrú, Bartzelona, Paris, Wiesbaden.

Ez litzateke txarra xenpelartarren gaineko kontu zahar-berri(tu)ok izatea hurrengo batek biziberri ditzan akuilua eta seinalea.



*Bozetoa. Joxemari Telleria.  
Arg.: Juanmi Lacunza.*



*Pontikako elizako murala San Markori  
eskainia, Xenpelarren aurpegia duela. Joxe  
Mari Telleria. Argazkia: Juanmi Lacunza.*



*San Marko eliza. Pontikako auzoa.*